



ikastolak



LABIAGA IKASTOLA BERA



Liburuaren Eguna hainbat ekimenekin ospatu genuen Labiagan.

Liburuaren eguna Labiaga Ikastolan

LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN HARIRA, HAINBAT EKITALDI
OSPATZEN DITUGU IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO

Testua eta argazkia Labiaga Ikastola

Liburuaren Nazioarteko Eguna apirilaren 23an mundu mailan ospatzen den eguna da. Labiaga ikastolako helburu nagusi bat irakurketarekin gozatzea da eta nahiz eta ikasturte osoan garrantzi handia izan, Liburuaren Eguna ekintza desberdinekin ospatzen dugu.

GURASOAK IRAKURLE: HH Haur Hezkuntzako ikasleoi aunitz gustatzen zaigun ekintza Guraso Irakurle deitzen duguna da. Izan ere gurasoak ipuinak irakurtzera gonbidatzen ditugu.

Urtero, guregana hurbiltzen ani-

matzen dira, eta nerbioak kontrolatuz Haur Hezkuntza osoari ipuinak irakurtzen dizkigute, antzerkitxoak antzeztzen dituzte... baten bat ere moztortuta etorri izan da!

Guk "ipuin-kontalariak" deitzen ditugu, eta egunero nor etorriko ote den zain egoten gara.

Beraiek eroso sentitu daitezen irakurketarako lekua prestatzen laguntzen diegu irakasleei; eta guraso hauek sobera urduritu ez daitezen, irakurlearen seme-alaba bere ondoan jarriko da, behar izanez gero laguntzeko prest agertzen garelarik beti.

Juul bozketa egunean, ipuin hauen artean gehien gustatu zaiguna auke-

ratu behar izaten dugu, eta zalantzarik gabe bakoitzak bere gurasoak irakurtzeko bozkatzeko du!

JUUL BOZKETA Urtero egiten dugun moduan, Juul kanpainako liburu eta ilustratzaile gustukoenen bozketan parte hartu genuen apirilaren 4ean. Ikastola osoak parte hartu genuen ekintza honetan: HH, LH eta DBH-ko ikasleek. Hala ere, modu desberdinetan bozkatu genuen. HH-ko ikasleek eta LH-ko 1. ziklokoek boto txartelaren bidez egin genuen bozka, eta LH-ko 2. eta 3. ziklokoek eta DBH-koek ordenagailuen bidez bozkatu genuen, hau da, bozketa elektroni-

koa egin genuen.

Guzti hau apirilak 4a baino lehen prest edukitzen dugu. Bakoitzak, irakurri ditugun liburuaren artean gustukoena pentsatzen dugu eta honen izenburua eta idazlea apuntatzen ditugu. Gainera, liburuak hainbertze alaitzen dituzten marrazkien egile gustukoenaren izena ere idazten dugu.

Hortaz, apirilaren 4ean, dena prest genduela bozkatzeko hasi ginen. Lehenengo HH-ko ikasleek banan-banan gure boto txartelak kutxetan sartu genituen, bat liburuaren kutxan, eta bestea ilustratzailearenean. Jarraian, LH-ko 1. eta 2. mailakoen txanda izan zen eta modu berean bozkatu genuen. Bitartean, ordenagailu gelan txandaka gainontzeko ikasleek bozkatu genuen, gure agendetan apuntatuta geneuzkan datuak Juul kanpainaren web orrian sartuz.

Hau guztia ongi joan zedin kontrolatzeaz ikasle talde bat arduratu ginen. Hautestontziak zeuden mahaian lehendakaria, idazkaria eta bi mahaikide bildu ginen. Gure zeregina, ikasleei bozketa txartelak zegokien kutxan sartzen laguntzea, ikasleen izenak galdetu eta zerrendetan bozka emana zutela apuntatzea eta urduri zeudenei lasaitu eta laguntzea izan zen. Guk ere, lan hau hasi

aintzinetik gure bozka eman genuen noski, gero gure lana lasai betetzeko!

LIBURUAREN EGUNA Juul bozketa eguna, gurasoak irakurle... zenbat gauza egiten ditugun irakurzaletasuna bultzatzeko, baina, ez dira bakarrak! Liburuaren eguna hurbiltzen denean egun oso bat hartzen dugu hau ospatzeko. Egun berezia da, ikastolako ikasle guztiak elkartu eta ekintza bereziak egiten ditugulako. Aurten ospakizun honek oporretan harrapatu gaituen, pixka bat aintzintzea erabaki genuen, beraz, apirilaren 11an ospatu genuen.

Egunari hasiera emateko eta giroa sortzen hasteko, bideo batzuk ikusi genituen. Horren ondotik gelen arteko interakzioari ekin genion. Urtero egiten dugun ekintza da, baina, hainbertze gustatzen zaigu ez gurela sekulan aspertzen. Helburua gure arteko harremanak estutzea izateaz gain, gure ikaskideei guk prestatutako lanak (antzerkitxoak, mikroipuiak, asmakizunak...) aurkeztea da. Horretarako kurtsu bakoitzak zerbait prestatzen du eta bertze gela bati erakusten dio. Dendenak parte hartzen dugu, tikienetik hasi (HH) eta zaharrenetarako (DBH) eta primeran pasatzen dugu! Gainera, aurten prestatu ditugun lantxoak euskaraz, ingelesez eta frantsesez egin ditugu, beraz, hizkuntzak praktikatzeko aukera paregabea izan dugu. Ondotik, urduritasunak pasatu eta pixka bat lasaitzeko atsedenaldia hartu genuen.

Indarberriturik hurrengo ekintzarekin hasi ginen, eskulan bat: muntro irakurlea handienak eta papezko txontxongiliak tikiak. Honek urtarako ere, gelen arteko elkarlana ezinbertzeko izan zen. Gauza bat eta bertze, ia goiz guztia pasa genuen lanean baina eguerdirako sorpresa berezi bat prestatuta geneukan: lagun ezkutua. Aurten lehenengoz egin dugu eta izugarri gustatu zaigu. Baina aizue, lagun ezkutu honek berezitasun bat du, opariak egin ordez lagunei liburuak utzi egiten dizkiegula. Egun batzuk lehenago gelen zozketa egin genuen, hori urduritasunak: poltsatik noren izena aterako dut, zein liburu ekarriko diot...ez zen lan xamurra izan, lagunari ipuin berezi eta polit bat uztea ez baita erraza. Ondotik, egunean bertan elkartrukea egin genuen eta emozioz beteriko momentuak pasa genituen. Arratsaldean eguraldi ona zegoenez ikastolatik atera eta belategietan edo zuhaitz artean utzitako liburuak elkar gozatu genuen. ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Nola deitzen ditugu Haur Hezkuntzan ipuina irakurtzera etortzen diren gurasoak?
2. Noiz ospatu dugu Liburuaren Eguna?
3. Ze hizkuntzak erabili dira egindako interakzioan?

Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Ibai Iturregi (Baztan Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Lucia Campo (Ibaialde Ikastola).
INTER-SPORT IRABIA (baloia): Lexuri Arotzena (Tantirumairu Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitoritu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.